

MUNDUAK GUZTIONTZAT BEHARKO LUKE

ULERTUZ ELKARTEA

Denok ditugu egun onak eta txarrak. Entzumen urritasuna duen haur baten kasuan, zerk baldintza dezake bere egunaren kolorea?



BIZIPOZA


elkarlanean




GORPUTZ HEZKUNTZAN ZARATA HANDIA ZEGOEN
ETA EZ DITUT ONDO ULERTU IRAKASLEAREN
AZALPENAK. ARIKETA GAIZKI EGIN DUT ETA
LAGUNEK TRANPA EGIN DUDALA ESAN DIDATE.



MATEMATIKAKO IRAKASLEARI GAUR AHAZTU EGIN
ZAIO BIZKARREZ DAGOELA HITZ EGITEN BADU, EZIN
DITUDALA BERE EZPAINAK IRAKURRI. ETA, GAINERA,
AZKEN LERROAN JARRI NAU. EZ DUT EZER ULERTU.



GERO BIDEO BAT IKUSTERA JOAN GARA ETA EZ ZEUKAN
AZPITITULURIK. BERRIRO GALDUTA SENTITU NAIZ.



ETA JOLASGARAITIK ERE
BERANDU IRITSI NAIZ.
TXIRRINAK JO DU, BAINA
ZEGOEN ZARATAREKIN
EZ NAIZ ENTERATU
ERE EGIN.

ANE! BAZATOZ
EDO ZER? BALOIA
BOTA GUTXIENEZ!

TORI BALOIA.
SEGI ZUEK! AIZU LIERNI,
ETA NOLA LAGUNDU ZAITZAKEGU
BIHARKOA EGUN HOBEA
IZAN DADIN?



HEZKUNTZA FISIKOAN,
JOLASAREN AZALPENA
ONDO JASO DEZADAN
PIXKA BAT LAGUNDUZ.



KLASEAN, IRAKASLEEK
AURRERA BEGIRA HITZ
EGINEZ ETA EZ BIZKARRA
EMANDA. ETA LEHEN
LERROAN BANAGO,
ASKOZ HOBETO.



AZPITITULUAK DITUZTEN FILMAK AUKERATUZ,
NIK ERE ONDO ULER DEZADAN.



ETA TXIRRINARI ARGI SEINALE BAT JARRIAZ,
JOTZEN DUENEAN NI ONDO KONTURATZEKO.



AIZU LIERNI.
BA EZ DA HAIN ZAILA ZURI EGUN
HOBEA IZATEN LAGUNTZEA. HITZA
EMATEN DIZUT SAIATUKO GARELA
AURRERANTZEAN.



MILA ESKER
ANE! GOAZEN
JOLASTERA.

BIZIPOZAKo elkarteak

ADEMG: Gipuzkoako Esklerosi Anizkoitza Elkarte.

AFESTTA: Euskadiko Tourette Sindromearen eta bestelako osasun-arazozen familien Elkarte.

AGIPASE: Gipuzkoako guraso bananduen elkarte.

AMPGYL: Gay, Lesbiana, Bixesual eta Transexualen Gurasoen Elkarte.

ARNASA: Gipuzkoako Fibrosi Kistikoaren Elkarte.

ASPANIF: Guraso elkarte, euren umeak erbi eza-paindun edo ahasabai hautsiekin jaioak izaki eta, batipat, Euskal Herrian jarduten duena.

ASPANOGI: Haur Minbizidunen Gurasoen Elkarte.

AURRERA ATERA: Animalien laguntzako terapiaren bidez bazterturiko kolektiboen aurrean laguntza fisiko eta emozionalak lantzen ditu.

BANAIZ BAGARA: Euskal Herrian bizi diren etorkinekin euskara ikasteko moduak eskaintzen ditu.

BEROA: Gipuzkoako harrera familien elkarte.

BIHOTZET: Kardiopatiadun haurren familien Elkarte.

BIAK BAT: Elbarritasun bat duten lagunei eta gizartearen bazterturik geratzeko arriskua dutenei laguntzeko txakurrak hezten ditu.

CHERNOBILEN LAGUNAK: Ukrainiako Dovorria gizarte etxearekin lan egiten du Gipuzkoako elkarte.

CHRYSALLIS EUSKAL HERRIA: Adingabe Transexualen Familien Elkarte.

DRAVET: Dravet Sindromea dutenen Fundazioa.

ETIOPIA UTOPIA: Wukron eta hedaduraz, Tigray eskualdean, garapenerako lankidetzan lagundu eta laguntza humanitarioa ematea duena.

FSDPV: Euskadin down sindromea duten familien elkarte.

GEHITU: Berdintasun Sozialaren defentsan lan egiten dute.

GIZAKIEN LURRA: Laguntza zuzena babesik gabeko haurrei. Politika, arraza eta konfesionaltasuna kontuta hartu gabe.

GIPUZKOAKO KIROL EGOKITUEN FEDERAZIOA: Kirol egokituaren sustapena eta antolaketa Gipuzko.

GOIERRIKO SAHARAREN ALDEKO LAGUNAK: Sahara herriaren alde lan egiten duen elkarte.

GURE NAHIA: Gipuzkoako Gaixotasun arraroak dituzten haurren aldeko Elkarte

GURE SEÑEAK: Bizkaiko Txorierrin gaixotasun arraroak dituzten haurren familien Elkarte.

HIRU HAMABI: Garuneko kaltea jasan duten adin txikien familien elkarte.

JUNEREN HEGOAK: Beharra duten beste haurrei laguntzeko sortutako elkarte.

KALE DOR KAYIKO: Ijito Kultur Elkarte.

PAUSOKA ELKARTEA: Beharizan bereziak dituzten haurren gurasoak.

SEASKAKO INTEGRazio BATZORDEA: Ahalmen urriko haurren eskolatzeara sustatzen du ikastoletan.

UME ALAIA: Adopzio Familien Elkarte.

ULERTUZ: Bizkaiko Lurraldean entzumen urritasuna duten neska-mutilei eta gazteei eta horien familiei laguntza zuzena sustatzen eta eskaintzen duen elkarte.